## I. ARAU OROKORRAK

### Xedea eta asmoa

Kode Etiko honen xedea da udal langileek euren funtzioak betetzeko gauzatzen dituzten jarduera profesional guztietan zaindu eta bultzatu beharko dituzten balore etikoak eta horien araberako jokabide-arauak ezartzea, eta, era berean, kudeaketa onaren eta jarduera profesionalerako arauen oinarriak xedatzea ere.

Urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak onartutako Langile Publikoaren Estatutuaren Legearen testu bateginaren 52-54 artikuluetan ezarritakoari jarraiki osatu da Kode hau eta, gainera, eredutzat hartu da Gipuzkoako foru enplegu publikoaren etikaren eta kudeaketa onaren kodea.

Kode honen asmoa da, udal enplegu publikoaren esparruan, azpiegitura etiko bat garatzea, langile publikoen eredugarritasuna, objektibotasuna eta bikaintasuna bistaratu eta sakontzeko asmoz.

Gainera, Legazpiko herritarren zerbitzuan ari diren langile publikoendako portaera onaren gidari izango da. Langile horien inpartzialtasun, profesionaltasun eta zuzentasun irudia sendotu asmo du, eta zerbitzurako bokazioa eta herritarrei begira lan egitea ere sustatu nahi du.

Berdintasuna bultzatuko du eta edozein jokabide diskriminatzaile saihestuko. Beraz, errespetatuko ditu kultura-aniztasuna, aniztasun erlijiosoa eta hizkuntza-aniztasuna;

## I. NORMAS GENERALES

### Objeto y finalidad

El objeto del presente Código Ético es establecer los valores éticos, y en el marco de éstos, normas de conductas, así como los principios de buena gestión y normas de actuación profesional que deberán ser observadas y promovidas por las y los empleados municipales en el ejercicio de todas aquellas actividades profesionales relacionadas con el ejercicio de sus funciones.

El presente código se elabora de acuerdo con lo establecido en los artículos 52 a 54 del Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público y utilizando como referencia el Código ético y de buena gestión del empleo público foral de Gipuzkoa.

El Código pretende desarrollar en el ámbito del empleo público municipal una infraestructura ética que ponga de relieve y profundice la ejemplaridad, objetividad y excelencia de las y los empleados públicos en el ejercicio de sus funciones.

Constituirá, además, una guía de buena conducta de las y los empleados públicos en el servicio a la ciudadanía de Legazpi, reforzará su imagen de imparcialidad, profesionalidad, e integridad y fomentará una vocación de servicio y orientación a la ciudadanía.

Promoverá la igualdad, evitando cualquier trato discriminatorio y respetando la diversidad cultural, religiosa y lingüística, así como por cualquier otra condición o



EGINBIDEA
Nik, Udaleko idazkariak egiten dut, dokumentu hau ondorengo organoan onartu dela ohartarazteko:
BETIKOZ
2018/10/01(e)an egindako udal GOBERNU BTZORDEAren bilkuran

baita bestelako edozein izaera edo egoera ere.

Azkenik, balio etikoak errespetatzeak eta sustatzeak eta jokabide arau zein kudeaketa onaren eta jokabide profesionalaren printzipioak betetzeak eragingo du herritarrek udal langileengan duten konfiantza handitzea, baita, bide batez, Legazpiko Udalarengan duten konfiantza ere.

**Jokabide eta gobernu onaren kodearen izaera.**

Kode honek, alde batetik, balore etikoak eta jokabide arauak eta, bestetik, kudeaketa onaren eta jokaera profesionalaren printzipioak zerrendatzen ditu. Kodeak, gainera, orientatzailea izan nahi du udal langile publikoek euren jarduera profesionala modu eraginkorrean garatu dezaten, eta izaera prebentiboa du.

Udal antolakundeen azpiegitura etikoaren prebentzio eta hobekuntza izaera dela eta, Kode honek ez du langile publikoei ezarri ahal zaien diziplina edukirik. Dena den, jokabide ez-egokiak gaitzesten ditu eta halabeharrez publikoak izan behar diren iradokizunak, oharrak eta gomendioak egitea aurreikusten du.

Kode hau derrigorrez bete behar dute udal langile guztiek, testu honetan ezarritako terminoetan.

**Aplikazio esparrua**

Kode hau derrigorrez bete behar dute udal langile guztiek, testu honetan ezarritako terminoetan.

**II. BALORE ETIKOEN ETA KUDEAKETA**

circunstancia.

Por último, fortalecerá, a través del respeto y promoción de los valores éticos y normas de conducta y principios de buena gestión y actuación profesional, una mayor confianza pública de la ciudadanía en las y los empleados públicos municipales y, por ende, en el Ayuntamiento de Legazpi.

**Naturaleza del código de conducta y buena gestión.**

El presente Código enuncia valores éticos y normas de conducta, por una parte, y principios de buena gestión y actuación profesional, por otra, con un carácter preventivo y orientador para el desarrollo efectivo de la actividad profesional de las y los empleados públicos municipales.

Dado el carácter esencialmente preventivo y de mejora de la infraestructura ética de las organizaciones municipales, el presente Código carece de contenido disciplinario. No obstante, contempla la reprobación de conductas inapropiadas y la formulación de sugerencias, observaciones y recomendaciones que necesariamente habrán de ser públicas.

Este Código será de obligado cumplimiento por todos las y los empleados públicos municipales en los términos establecidos en el presente texto.

**Ámbito de aplicación**

Este Código será de obligado cumplimiento por todos las y los empleados públicos municipales en los términos establecidos en el presente texto.

**II. DECALOGO DE VALORES ÉTICOS Y**


**2** de **20**

LEGAZPIKO UDALA
EGINBIDEA
Nik, Udaleko idazkariak egiten dut, dokumentu hau ondorengo organoan onartu dela ohartarazteko:
BETIKOZ
2018/10/01(e)an egindako udal GOBERNU BTZORDEAren bilkuran

**ONAREN PRINTZIPIOEN DEKALOGOA**

**Balore etikoak**

*Zuzentasuna.*

Zuzentasuna bertute bat da eta bidea ematen dio langile publikoari eguneroko jardunean ari denean zerbitzu publikoaren printzipioarekin eta harekin bat datozen gainerako printzipioekin -inpartzialtasuna, gardentasuna eta legezkotasuna, besteak beste- bat eginik jarduteko. Hutsik gabeko jokabide etikoak udal langile publikoaren lana eta irudia duintzen ditu, baita herritarrek gertuen duten erakundearengan duten konfiantza handitu ere.

*Eredugarritasuna.*

Langile publikoen praktika onek gizarte-kulturaren aldaketa eta gizarte-arauak barneratzea errazten dute. Ondorioz, langile horien jokabide profesionalak jokaera eredugarria izango du gidaritzat.

*Zintzotasuna eta eskuzabaltasun objektiboa.*

Interes publikoak eta herritar guztien interesek bakarrik bideratuko dute udal langile publikoen jarduna. Beraz, ezin onar liteke erabakiak hartzen dituen pertsonak berak, haren familiak edo lagunek onuraren bat jaso (ahal) duten inolako susmorik; ezta hartutako erabakiak udalerriaren interes orokorretatik urruntzen diren interes partikularren eraginpean hartu diren irudipenik.

*Inpartzialtasuna eta Objektibotasuna.*

Inpartzialtasuna da udal enplegu publikoa izateko arrazoia. Beraz, bere jarduera profesionalak eragin eta orientazio politikoetatik eta bestelakoetatik urrun egon beharko du; Gobernu taldeari eta beronen

**PRINCIPIOS DE BUENA GESTIÓN.**

**Valores éticos**

*Integridad*

La integridad consiste en la virtud que permite al empleo público actuar cotidianamente de forma coherente con el principio del servicio público y con los otros principios congruentes con el mismo, como la imparcialidad, la eficacia, la transparencia, la legalidad, etc. El comportamiento ético intachable del empleado público municipal dignifica su trabajo profesional, su imagen y la confianza de la ciudadanía en su institución más cercana.

*Ejemplaridad*

La conducta profesional de las y los empleados públicos favorece el cambio de cultura cívica y la interiorización social de las normas. Por ello, su conducta profesional estará guiada por un comportamiento ejemplar.

*Honestidad y Desinterés subjetivo*

El interés público y el interés de la ciudadanía serán los únicos motores de la actuación de las y los empleados municipales. Ello implica que tampoco debe existir la más leve sospecha de que las decisiones adoptadas benefician (o puedan hacerlo) a la persona que las adopta, a sus familiares, a sus amistades o están influidas por intereses particulares alejados del interés general del municipio.

*Imparcialidad y Objetividad*

La imparcialidad es la razón existencial del empleo público municipal. Su actuación profesional debe estar alejada de influencias y orientaciones políticas o de otro carácter, salvo en lo que respecte a la colaboración



LEGAZPIKO UDALA
EGINBIDEA
Nik, Udaleko idazkariak egiten dut, dokumentu hau ondorengo organoan onartu dela ohartarazteko:
BETIKOZ
2018/10/01(e)an egindako udal GOBERNU BTZORDEaren bilkuran

gobernu jarduerari eskaini beharreko laguntza profesionalari dagokionean izan ezik, betiere, erakundearekiko leial eta interes orokorrarekiko konpromisotik, zerbitzu publikotik eta legezkotasunaren defentsa zorrotzetik.

Era berean, jarduera publikoak egitean udal langile publikoek objektibotasunaren arabera jardun beharko dute, herritarren zerbitzura beti. Horretarako, euren txosten eta proposamenak kasu bakoitzaren analisi zorrotzean oinarrituko dira.

*Bikaintasun profesionala*

Udal langile publikoek euren funtzioetatik eratorritako lanak egingo dituzte, bikaintasuna lortzea helburu duten profesionaltasun handiko irizpideen arabera; horrela, zerbitzu publikoaren bokazio sendoa hedatuz, herritarrei zerbitzu hobeak emateko xedez.

Horretarako, udal langile publikoek etengabe garatu eta hobetuko dituzte euren eskumen profesionalak, bere profil profesionala optimizatzeko eta bere lanpostuari esleitutako funtzio eta lanak egoki burutzeko Udalak diseinatzen dituen formazio programen bidez.

Era berean, elkarlana, erakunde-konpromisoa eta berez ez dagozkion egitekoetarako lankidetza garatuko dituzte, baita talde izpiritua eta garapen profesionala ere, erakundearen errendimendu eta emaitza hobeei laguntzeko udal zerbitzu publikoetako erabiltzaileen onurarako.

*Eraginkortasuna*

Udal baliabideen kudeaketa eta udal langile publikoen kudeaketa ekonomiko-finantzieroa eraginkortasunaren ideiak gidatuko ditu, betiere ondasun edo baliabide publikoak xahutzea saihestuz eta euren erabilera

profesional debida con el equipo de Gobierno y su acción de gobierno, siempre desde la lealtad institucional, el compromiso con los intereses generales y el servicio público y la estricta defensa de la legalidad.

Asimismo, en el ejercicio de sus actividades profesionales, las y los empleados municipales deberán actuar con objetividad, siempre al servicio de la ciudadanía. A tal efecto, basarán sus informes y propuestas en análisis rigurosos de cada caso.

*Excelencia profesional*

Las y los empleados municipales llevarán a cabo las tareas derivadas de sus funciones con criterios de elevada profesionalidad que persigan alcanzar la excelencia y desplegar, así, una vocación firme de servicio público, con el fin de prestar los mejores servicios a la ciudadanía.

A tal efecto, desarrollarán y mejorarán continuamente sus competencias profesionales a través de los programas formativos que diseñe el Ayuntamiento con la finalidad de optimizar su perfil profesional y con el objetivo de llevar a cabo un desempeño adecuado de sus funciones y tareas asignadas.

Asimismo, desarrollarán el trabajo colaborativo, el compromiso organizativo y el desempeño contextual, así como el espíritu de equipo y organización en beneficio de los usuarios de los servicios municipales.

*Eficiencia*

La gestión de los recursos municipales y la gestión económico-financiera de las y los empleados municipales estarán imbuidas por la eficiencia, obviando incurrir en ningún tipo de despilfarro en el uso de bienes o recursos


**4** de **20**

LEGAZPIKO UDALA
EGINBIDEA
Nik, Udaleko idazkariak egiten dut, dokumentu hau ondorengo organoan onartu dela ohartarazteko:
BETIKOZ
2018/10/01(e)an egindako udal GOBERNU BTZORDEaren bilkuran

optimizatuz.

públicos y optimizando su uso.

Eraginkortasun helburu hori berrikuntza edo hobekuntza jarraituko prozesuen bidez sustatuko da, eta politika publikoen ebaluazioa, baita langile publikoen lanaren ebaluaketa ere, oinarrizko zutabe dituenak. Arreta berezia emango zaio Udalaren finantza iraunkortasuna bermatzeari, eta etorkizuneko gobernuen ekintza edo etorkizuneko belaunaldiak ez hipotekatzeari.

Ese objetivo de eficiencia se promoverá mediante procesos de innovación o de mejora continua y en los que la evaluación de las políticas municipales, así como la evaluación del desempeño sean pilares esenciales. Especialmente en lo que respecta a garantizar la sostenibilidad financiera del Ayuntamiento y a no hipotecar la acción de los gobiernos venideros ni a las generaciones futuras

*Bizikidetza eta errespetua.*

*Convivencia y Respeto*

Udal langile publikoek euren eginkizunen bitartez sustatuko dute bizikidetza, elkartasuna eta tolerantzia nabarmentzen duen laneko giroa, pertsonal eta profesionala; bizikidetza, elkarrekiko errespetua, pluralismoa eta elkartasuna bultzatuz.

Las y los empleados municipales fomentarán, a través del ejercicio de sus funciones un clima laboral, personal y profesional en el que prevalezca la convivencia, la solidaridad y la tolerancia, impulsando el respeto mutuo, el pluralismo y la solidaridad.

Era berean, herritarrak, Administrazio Publikoen zerbitzurako gainontzeko langileak eta kargu publikoak pertsona orok merezi duen kortesia, zuzentasun, errespetu eta duintasunarekin tratatuko dituzte. Beraz, ez dute mespretxuzko terminoen edo edozein motatako diskriminazio praktiken (bereziki generoaren gainekoak, baina baita sinesmen, ideologia, sexu orientazioa, arraza, ezgaitasuna edo beste edozein ere) erabilera dakarten jarrera edo jardunik erabiliko.

Asimismo, tratarán a la ciudadanía, al personal al servicio del Ayuntamiento y cargos públicos, con la cortesía, la corrección, el debido respeto y la dignidad que toda persona merece. Se abstendrán, por consiguiente, de llevar a cabo conductas que contravengan esa actuación y que conlleven el uso de términos despectivos o de prácticas de discriminación de cualquier tipo (género, creencias, ideológica, orientación sexual, raza, discapacidad o cualquier otra).

Udal langile publikoek, bereziki bultzatuko eta errespetatuko dute egiazko genero berdintasuna.

En particular, las y los empleados públicos municipales promoverán y respetarán la igualdad real en materia de género.

**Kudeaketa onaren printzipioak eta jardunbide profesionaleko arauak.**

**Principios de buena Gestión y Normas de actuación profesional.**

*Gardentasuna*

*Transparencia*

Gardentasuna Udalaren kudeaketa sistemaren parte den printzipioa da. Udal langile publikoen jardunen gida izango da

La transparencia es un principio que forma parte del sistema de gestión del Ayuntamiento. La actuación profesional de las y los empleados públicos municipales



LEGAZPIKO UDALA
EGINBIDEA
Nik, Udaleko idazkariak egiten dut, dokumentu hau ondorengo organoan onartu dela ohartarazteko:
BETIKOZ
2018/10/01(e)an egindako udal GOBERNU BTZORDEAren bilkuran

gardentasuna bere adiera zabalenean, betiere herritarren oinarrizko eskubideak errespetatuz eta legearen barruan.

tendrá como guía el ejercicio de la transparencia en su más amplio sentido, siempre con respeto a los derechos fundamentales de la ciudadanía y en el marco de la legalidad.

*Kudeaketa eta berrikuntzaren kultura*

Udal langile publikoek euren jarduera profesionalen langile publikoen gaitasunak garatzea eta proiektuetan, sormena eta iniziatiban inplikazio handiagoa pixkanaka sartzea suposatzen duen kudeaketaren kultura aurreratua garatuko dute, baita publikoaren eremuan berrikuntza praktiken sustapena ere. Euren jarduera profesionalean Administrazio digitalaren garapenaren aldeko apustu eraginkorra egingo dute, prozeduren sinplifikazioa eta herritarrei eta enpresei administrazio kargak ezabatzea. Esku hartzen duten prozeduretan herritarren parte hartzea eta gobernu irekiaren teknika guztiak sustatuko dituzte.

*Cultura de gestión e innovación.*

Las y los empleados públicos municipales desarrollarán en su actividad profesional una cultura avanzada de gestión que implique desarrollar las capacidades de los propios empleados públicos y suponga introducir gradualmente una mayor implicación en los proyectos, creatividad e iniciativa, así como el impulso de prácticas de innovación en el ámbito de lo público. Apostarán decididamente en su actividad profesional por el desarrollo de forma efectiva de la Administración digital, la simplificación de procedimientos y la eliminación de cargas administrativas a la ciudadanía y a las empresas. También fomentarán la participación ciudadana en los procedimientos en los que intervengan y todas las técnicas de gobierno abierto.

*Euskararen sustapena eta erabilera*

Udal langile publikoek, orokorrean, euskara izango dute lan eta harreman hizkuntza, eta Udal Administrazioan euskararen erabilera modu aktiboan sustatuko dute, euren jarduera profesionalen garapenean, bereziki herritarrekiko eta euren elkarte ehunarekiko harremanetan. Era berean, euren jarduerak burutzean, hizkuntzen ko-ofizialtasuna errespetatuko dute eta hizkuntza arrazoiengatik diskriminazioa sortzen duen edozein jarrera saihestuko dute, edozelan ere.

*Promoción y uso del euskera*

Las y los empleados públicos municipales adoptarán, por lo común, el euskera como lengua de trabajo y de relación. Promoverán su uso en la administración municipal, en el desarrollo de sus actividades profesionales, en particular en las relaciones con la ciudadanía y con su tejido asociativo. Asimismo, en el ejercicio de sus funciones respetarán el marco de co-oficialidad lingüística y evitarán en todo caso cualquier conducta que implique la discriminación por razón de lengua.

*Ardura profesionala*

Udal langile publikoek ardura profesional osoarekin jardungo dute beti euren eginkizunak burutzean. Horrek esleitutako funtzioen dedikazio berezia dakar, gai edo

*Responsabilidad profesional*

En el ejercicio de sus funciones las y los empleados públicos municipales actuarán siempre con plena responsabilidad profesional. Ello implica una


**6** de **20**

LEGAZPIKO UDALA
EGINBIDEA
Nik, Udaleko idazkariak egiten dut, dokumentu hau ondorengo organoan onartu dela ohartarazteko:
BETIKOZ
2018/10/01(e)an egindako udal GOBERNU BTZORDEAren bilkuran

administrazio izapide bakoitzak suposatzen dituen interes eta jarrerak baloratuz beti, proposamen edo txostenak arrazoituz eta, edozelan ere, funtzio horiek egoki ez betetzeak edo euren jarrerak sortzen dituen ondorioak onartuz.

especial dedicación a las funciones asignadas, valorando siempre los intereses y posiciones que cada asunto o trámite administrativo conlleve, motivando en todo caso cualquier propuesta o informe, y, en todo caso, asumiendo las consecuencias que se deriven por el ejercicio incorrecto de tales funciones, así como de sus propias conductas

## III. JOKABIDE ETIKOAREN ARAUAK ETA JARDUERA PROFESIONALEKO ARAUAK KUDEAKETA ONAREN ESPARRUAN.

## III. NORMAS DE CONDUCTA ÉTICA Y NORMAS DE ACTUACIÓN PROFESIONAL EN EL AMBITO DE LA BUENA GESTIÓN.

### Jokabide arauak

*Zuzentasuna.*

a) Udal langile publikoek euren jarduera profesionalak burutzean Kode honetan ezarritako jokabide, balore eta arauen araberako jokabide etikoa izango dute.

b) Euren funtzioak osotasunez burutzen dituztela bermatzeko, udal langile publikoek euren ebazpen proposamenak edo euren txosten edo jarduerak dagozkion datu teknikoen bidez justifikatuko dituzte.

c) Batik bat, euren funtzioak burutzean eragina izan dezaketen eta euren jarduera profesionalaren osotasunaren gaineko arrazoizko zalantzak planteatu ditzaketen kanpo eraginak saihestuko dituzte. Bereziki, pertsona edo erakunde batzuenganako faboritismo susmoa eragin dezaketen jarduerak saihestuko dituzte.

d) Era berean, zuzenean edo zeharka, euren lanpostu publikoagatik edo euren funtzioak burutzean eragina izan dezakeen edozein abantaila ukatu edo saihestuko dute, edozein pertsona edo erakundek proposatuta ere.

### Normas de conducta

*Integridad.*

a) Las y los empleados públicos municipales, en el desempeño de sus actividades profesionales, actuarán con un comportamiento ético adecuado plenamente a los valores y normas de conducta establecidos en este Código.

b) Para salvaguardar el ejercicio íntegro de sus funciones, justificarán siempre sus propuestas de resolución, sus informes o sus actuaciones en datos pertinentes y técnicos.

c) Especialmente, evitarán cualquier interferencia externa que pueda incidir en sus funciones y plantear dudas razonables sobre la integridad de su actuación profesional. En particular, obviarán cualquier actuación que pueda provocar sospecha de favoritismo a determinadas personas o entidades.

d) Asimismo, desecharán radicalmente o evitarán cualquier ventaja, directa o indirecta, que se les proponga por parte de cualquier persona o entidad o que puedan obtener en razón del empleo municipal que ocupan.



LEGAZPIKO UDALA
EGINBIDEA
Nik, Udaleko idazkariak egiten dut, dokumentu hau ondorengo organoan onartu dela ohartarazteko:
BETIKOZ
2018/10/01(e)an egindako udal GOBERNU BTZORDEaren bilkuran

*Eredugarritasuna.*

a) Udal langile publikoek euren jarduera profesionala garatzean une oro kontuan hartu beharko dute azken helburua herritarrei zerbitzua ematea duen erakunde batean lan egiten dutela.

b) Euren jarrera profesionalak jokamolde eredugarria izan behar du beti, eta euren jarduera eta ekintza zehatzetan islatuko da.

c) Udal langile publikoek, euren lanpostuetatik, euren erakundeetan giro etikoa sustatuko dute eta bertan lan egiten duten gainontzeko langileen erreferentzia izango dira, eta inolaz ere ez dute erakundearen irudiari kalte egin diezaiokeen jarrerarik izango edo jardunik egingo.

d) Edozelan ere, saiatuko dira euren jokabide eta jarrerek parte diren erakundearen legitimitatea indartu dezaten, eta, era berean, erakundeak kalterik txikiena ere jasatea saihestuko dute.

e) Udal langile publikoek, Udalaren eredugarritasuna eta irudia bermatzeko asmoz, ez dute burutzen dituzten jarduerak direla eta erakundeak euren esku jartzen dituen ondasun edo zerbitzuen erabilera okerra egingo.

f) Horretarako, lan orduetan eta lan espazioan, euren mugikor pertsonalak, sare sozialak eta Internet zentzuz eta etikoki erabiliko dituzte, erabilera pribatuaren kasuetan.

*Zintzotasuna eta eskuzabaltasun objektiboa.*

a) Udal langile publikoen jardunak interes publikoa guztiz betetzera eta Legazpiko herritar guztien interesetara besterik ez dira

*Ejemplaridad.*

a) Las y los empleados públicos municipales deberán ser, en todo momento, conscientes que desarrollan su actividad en una institución cuyo fin último es el servicio de la ciudadanía.

b) Su conducta profesional deberá estar guiada siempre por un comportamiento ejemplar, que se manifestará en sus actuaciones y acciones concretas.

c) Las y los empleados públicos municipales, desde sus puestos de trabajo, promoverán un clima ético y servirán de referentes al resto de personal que en ellas trabaje, no llevando a cabo, en ningún caso, conductas o actividades que puedan poner en perjuicio o menoscabar la imagen de la institución.

d) En todo caso, procurarán que a través de sus conductas y comportamientos la institución a la que pertenecen refuerce su legitimidad y evitarán, asimismo, que sufra el más mínimo daño o erosión.

e) Las y los empleados públicos municipales, con el fin de salvaguardar la ejemplaridad e imagen del Ayuntamiento, se abstendrán en todo caso de realizar un uso impropio de los bienes y servicios que éste pone a su disposición por razón de las funciones y tareas que desarrollan.

f) A tal efecto, en horas y espacios de trabajo, harán un uso razonable y ético de sus dispositivos móviles personales así como de las redes sociales o internet para uso exclusivamente privado.

*Honestidad y desinterés subjetivo.*

a) Las y los empleados públicos municipales, dirigirán sus actuaciones exclusivamente hacia el objetivo del pleno cumplimiento del interés público y de los intereses de la ciudadanía legazpiarra en su


**8** de **20**

LEGAZPIKO UDALA
EGINBIDEA
Nik, Udaleko idazkariak egiten dut, dokumentu hau ondorengo organoan onartu dela ohartarazteko:
BETIKOZ
2018/10/01(e)an egindako udal GOBERNU BTZORDEaren bilkuran

bideratuko.

b) Interes publiko eta pribatuen arteko gatazka edo gatazka zantzuen kasuan, langile publikoak eskumena duen arduradun edo aginteari berehala jakinarazi beharko dio. Etika Komisioari ere kontsulta helarazi ahalko dio.

c) Edozelan ere, aurreko puntuan adierazitako egoeraren bat gertatuko balitz, zuzen edo zeharka prozedura horretan parte hartzeari edo erabakiak hartzeari uko egin beharko dio.

d) Era berean, ez dute betebehar ekonomikorik hartuko, ezta finantza edo ondare eragiketetan edo negozio juridikoetan parte hartuko pertsona edo erakundeekin interes gatazka sor daitekeenean, nabaria edo itxurazkoa izan, langile publiko izaeratik sortutako jarduera profesionalekin lotuta.

e) Interes-gatazka sortzen da udal langile publikoak parte hartzen duen prozeduretan, baldin eta prozedura horietako gaietan bere lanpostuko edo jarduera profesionaleko eremuan interes pribatuak baditu beste pertsona bat(zu)ekin, edo pertsona zein kolektibo horiek nolabaiteko harremana (izan) duten enpresa edo erakundeen interes pribatuekin.

f) Interes-gatazka zantzua sortzen da udal langile publikoak parte hartzen duen prozeduretan, baldin eta langileak irizten badio prozedura horietan parte hartzeak ez diola bere interes pertsonalari edo senitartekoen edo gertu pertsonen interesei edo pertsona horiek nolabaiteko harremana (izan) duten enpresa edo erakundeen interesei eragiten; baina, objektiboki prozedura horietan parte hartzeak modu zuzen eta larrian kaltetu badezake herritarrek

conjunto.

b) En caso de conflicto o apariencia de tal entre intereses públicos y privados, el o la empleada pública municipal deberá ponerlo inmediatamente en conocimiento del responsable o autoridad correspondiente. También podrá, en todo caso, elevar consulta a la Comisión Ética.

c) Si se produjera alguna de las circunstancias indicadas en el punto anterior, deberá abstenerse de participar, directa o indirectamente en la adopción de la decisión de que se trate.

d) No contraerán obligaciones económicas ni intervendrán en operaciones financieras o patrimoniales o en negocios jurídicos con personas o entidades cuando pueda suponer un conflicto de intereses, evidente o aparente, en relación con las actividades profesionales derivadas de su condición de empleada o empleado público municipal.

e) Existe conflicto de interés cuando el empleado o empleada pública municipal. interviene en procedimientos relacionados con asuntos en los que confluyen o pueden confluir a la vez intereses de su puesto de trabajo o de su ámbito de actuación profesional con intereses privados propios con terceras personas, así como de empresas o entidades en las que esas personas o colectivos hayan tenido algún tipo de relación.

f) Existe apariencia de conflicto de interés cuando el empleado o empleada pública municipal considera que su intervención en procedimientos relacionados con asuntos de su competencia no afecta a sus intereses personales, familiares o de terceras personas vinculadas con él, empresas o entidades en las que esas personas hayan tenido algún tipo de relación, pero desde un punto de vista objetivo esa actuación o intervención puede dañar directa y gravemente la imagen de objetividad que la ciudadanía tiene de la


**9** de **20**

LEGAZPIKO UDALA
EGINBIDEA
Nik, Udaleko idazkariak egiten dut, dokumentu hau ondorengo organoan onartu dela ohartarazteko:
BETIKOZ
2018/10/01(e)an egindako udal GOBERNU BTZORDEaren bilkuran

erakundeari buruz duten objektibotasun irudia.

institución.

g) Udal langile publikoek ez dute oparirik, gonbidapenik, bidaiarik, otordurik edo konpentsazio ekonomikorik onartuko hitzaldiak emateagatik edo komunikabideetan parte hartzeagatik, berariaz euren lanpostuko berezko funtzioak gauzatzeari lotutako jarduerak direnean; eta, modu berean, ez dute euren zintzotasuna zalantzan jar dezakeen ezta erabakiak hartzea (itxuraz) baldintzatu dezakeen inolako onurarik onartuko.

g) Las y los empleados públicos municipales no aceptarán ningún regalo, invitación, viajes, comidas compensación económica por impartición de conferencias o participación en medios por actividades vinculadas con el ejercicio de sus funciones. Tampoco aceptarán beneficio alguno que pueda poner en duda su honestidad, condicione o pueda dar la apariencia de condicionar la toma de decisiones o la participación en ellas.

h) Era berean, udal langile publikoek beharrezko diren neurri guztiak hartuko dituzte gertuko senideek edo izatezko bikoteek, aurreko letretan adierazitakoaren arabera, oparirik edo gonbidapenik jaso ez dezaten bermatzeko.

h) Asimismo, las y los empleados públicos municipales adoptarán todas las medidas que sean necesarias para garantizar que su círculo familiar inmediato o pareja de hecho no es receptora de los regalos e invitaciones en los términos previstos en las letras anteriores.

i) Horren gaineko edozein zalantza Etika Komiteari helarazi beharko zaio ezartzen diren bideetatik, eta eskaria konfidentzialki izapidetzeko eskatu ahalko da.

i) Cualquier duda al respecto deberá elevarse a la Comisión Etica por los canales que se establezcan, pudiendo solicitar en su caso la tramitación confidencial de la solicitud.

*Inpartzialtasuna eta Objektibotasuna.*

*Imparcialidad y Objetividad.*

a) Udal langile publikoek euren jarduera publikoetan objektibotasunez jardun beharko dute herritarren interes orokorren defentsan. Horretarako, euren funtzioak burutzean, arrazoitu gabeko edo modu objektiboan hartu gabeko jarduera batean eragina duten edo horren susmoa edo irudia eman dezaketen praktika eta jardun guztiak saihestuko dituzte, horien bidez erakunde publiko edo pribatuei edo pertsona fisiko jakinei mesede-tratu edo onura zuzena zein zeharkakoa sor diezaieketenean.

a) Las y los empleados públicos municipales en sus actuaciones públicas deberán actuar con objetividad en defensa de los intereses generales de la ciudadanía. A tal efecto, evitarán en el ejercicio de sus funciones todas aquellas prácticas y actuaciones que afecten o levanten cualquier sospecha o apariencia de que a través de aquellas se puede incurrir de forma no objetivada ni motivada en una actividad que genere o pueda hacerlo beneficio directo o indirecto o trato de favor no justificado a entidades privadas o públicas o a personas físicas concretas.

b) Udal langile publikoek, informazio publikoaren gardentasunari kalterik egin

b) Las y los empleados públicos municipales, sin perjuicio de la transparencia


**10** de **20**

LEGAZPIKO UDALA
EGINBIDEA
Nik, Udaleko idazkariak egiten dut, dokumentu hau ondorengo organoan onartu dela ohartarazteko:
BETIKOZ
2018/10/01(e)an egindako udal GOBERNU BTZORDEAren bilkuran

gabe, zuhurtzia betebeharra mantenduko dute euren jarduera profesionalen ondorioz ezagutzen dituzten gai guztietan, baldin eta jokoan dauden interesengatik edo jorratutako helburuaren berezitasunagatik, jarrera hori bereziki izatea exijitzen duen gaia bada; eta ezingo dute informazio hori euren edota hirugarrenen onurarako erabili. Edonola ere, isilpeko klasifikatutako gai guztiak sekretupean mantenduko dituzte.

c) Jardueren objektibotasun horrek, bereziki izango du eragina lanpostuak betetzeko prozesuetan (sarrera, sustepena eta hornikuntza), kontratazio publikoetan, diru-laguntzen izapidetzeetan eta, oro har, legeak hala eskatuta publizitate eta konkurrentzia askeko printzipioek gidatzen duten edozein prozeduratan. Baita euren eginkizunetako inpartzialtasuna gordetzeko ere.

d) Udal langile publikoak ezingo du bere langile publikoko izaera erabili edozein motatako abantaila izateko edo nahi izateko, txikia bada ere, erakunde publikoetan zein pribatuetan.

e) Udal langile publikoek, ekintza bidez edo utzikeriaz, ez dute inola ere eragingo administrazio izapideak azkartzen edo ebaztean, ez zuzenean ezta zeharka ere, halakorik egiteko arrazoi objektiborik ez balego, horrek beste kargu edo langile publiko bati edo bere gertuko senideren bati zein inguru sozialeko norbaiti onurarik ez emateko edo beste norbaiti kalterik ez eragiteko.

f) Udal langile publikoen ebazpen proposamenak eta txostenak egoki arrazoituta egon beharko dira eta soilik irizpide teknikoen arabera eginda, interes

